


Astekaria



elgoi



Santa Ana kalea

**Argazkiak ORDUBETEAN izango dituzu eta
ALBUM BAT eta 24ko KARRETE BAT erregalatuko dizugu
Opf q reuc lj cwgtkcm 1995!**



PILAR IKASTETXEA

Pilar Ikastetxeko Gurasoen, Irakasleen eta Ikasleen Elkarte Hezkuntzak, San Viator Klerigoen eskutik honako heziketa eskaintzen du:

- **EUSKALDUNA:** Gure ingurunearen partaide eginez.
- **INTEGRALA:** Gizakiaren arlo guztietan.
- **KRISTAUA:** Itunberriko baloreekin bat.
- **GAURKOTUA:** Gaur egun erreformak daraman jarrerarekin.



ANTOLAMENDUA

IKAS MAILAK

- **HAUR HEZKUNTZA**
2 urtetik 5 urtera D ereduan.
- **LEHEN HEZKUNTZA**
1., 2. eta 3. zikloak B murgiltze ereduan.
- **OHO 7. eta 8. B ereduan.**
- **BIGARREN HEZKUNTZA**
95-I-3ko EBO onartua.

IRAKASLEGOA

Erreformari eta euskarari buruz eguneratua eta prestatua.

GURASOEN ELKARTEA

Jabetza eta administrazioaren arduraduna.

ZERBITZUAK

- Laguntza Psikopedagogikoa:
Bertako Psikologo eta pedagogoarekin.
- Jangela: Irakasle eta laguntzaile batekin.

EKINTZAK

Kirolak ▪ txapelketak ▪ txangoak, barnetegiak ▪ ikasketa bidaiak.

INSTALAKUNTZAK

GELAK

- Denak oso handiak
- 2 urteko gela 3 txoko desberdinez osaturik
- Psikomotrizitate gela
- Informatika gela

GELA BEREZIAK

- Bideo eta ikusentzuteko gela
- Hitzaldi Aretoa
- Antzerki eta Giñol gela
- Teknologi gela
- Liburutegia: Liburuak etxera eramateko aukera.

LABORATEGIAK

FISIKA ▪ KIMIKA ▪ HIZKUNTZAK

KIROL UNEA

- Gimnasioa: aparatuekin ornitua
- Polikiroldegia hainbat jolastokirekin
- Patioa: Futbito jolastokiarekin
- Frontoia: bi frontoiekin

COLEGIO Ntra Sra DEL PILAR

Urasandi kalea 1 • Tel. 74 13 31 • 20870 ELGOIBAR

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton

Bergara, Edurne Bilbao, Rosa

Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban

Antxustegi, Pello Arrieta,

Felix Arrizabalaga, Belen

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Mikel Cornejo, Izaskun

Elizburu, Jon Etxabe, Jon

Eugui, Koldo Galdona, Jose

Mari Galdos, Ina

Garagarza, Joseba

Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maite Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Edurne Korta, Imanol

Larrañaga, Antonio Matias,

Julian Mujika, Susana

Mujika, Maite Solozabal,

Karmelo Urdangarin, Aitor

Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



luzua fundazioa
fundación luzua



Mugen desagertzeak

Zer egiten du hi bezalako batek honelako herri batean? Askotan aipatu izan didate honako hau eta nik neuk ere sarritan galdetu izan diot neure buruari nola bukatu dudan hemen. Agian egungo mugak oso mugikor bihurtzen ari direla izan daiteke aurrekoaren erantzuna. Aintzina mugak garbiak ziren eta zeharkatzeko zailtasun bereziak zituzten. Adibidez, Urola bailaratik Debaldekora joateko mendateak igaro behar ziren, honek, ordubeteko tren bidaia nekeza, dela gutxi arte, eta denboran aurrerago joan ahala egun osoko txangoa edota gaupasa suposatzen zion bidaiari penatuari. Hau da, abenturero xamarra izan behar zen edota arrazoi sakonen bat izan horrelakoetan linburtzeko.

Ez dira urte asko, neskalaguna -gaur emaztea- eta biok, Iparraldean eguna igaro asmoz, Bidasoa ibaia zeharkatzeari lotu gintzaizkion. Zein izango zen nire harridura andregaiari Nortasun Agiri Nazionala ateratzeko eskatu nionean -nirea goardiei erakutsi eta gero, noski- eta berak, lasai asko, ez zuela NANA batetik bestera eramateko ohitura erantzun zidanean. Gauzak horrela (beltzak oso, nonbait) eta Irungo Santixo zubiko auto iladan geundenez nire

NANA besterik ez geneukala, adorez beterik, muga zeharkatzen ahalegingu ginen. Usteak ustel, polizia armatuak altoa eman eta ezin ginela pasatu adierazi zigun. Handik hamar minutura, Behobiako zubian ginen eta han ere ezetz, karneta ezinbestekoa zela, eta berriro ere buelta. Iparraldea hain gertu -eta hain urrun bestalde- izanik ezin, bada, amore eman, eta gu, Dantxarineariko mugara. Azkenean ere lortu genuen gurea. Alkatraz presondegiko iheslariak izan bagina ere..., hainbeste iskanbila!


Azkenik eta honen harira, irakurle, beharbada zerbait entzuna izango duzu Shengenekoa hitzarmenei buruz. Bertan, Europar Batasunaren barnean pertsonentzako mugak ere ezabatu egingo direla aipatzen da. Datorren martxoaren 26tik aurrerantzean ez omen da kontrolik izango Irungo mugetan.

Eta etorkizunean, zer? Beharbada, urte batzuk barru, pentsioa edo, jasotzen hasten garenean Benidorrera joan ordez Marraketxen -Grand Placen- aurkituko gara. Izan ere, badugu oraindik zer gaintitu.

A, badaezpada ere, egun hartatik aurrera emaztearen pasaportea autoan gordetzen dugu.

Jon Etxabe

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

• Ba al dago Mintxetan iturririk jartzeko asmorik?

Udal Teknikariarekin egon gara eta ezetz erantzun digu. Egon ziren gaia aztertzen baina ez omen dute leku aproposik topatzen. Gainera, egarria daukanak bai komunetan eta bai tabernan ere ura edateko erraztasun guztiak dauzka.



KEXAK

Aste honetako kexak haur parkeekin lotuta daude.

Batetik, telefonika parean dagoen parkean kolunpioak apurtuta omen daude eta gainera oso egoera arrisksuan. Bi neskatila etorri zaizkigu apurtutakoa kendu edota berria jartzeko esanaz.

Bestetik, Plaza Txikiko txirristada ere apurtuta omen dago. Aldamenetako babesgailurik ez du eta jendeak min hartzeko bezala omen dago. Konpontzeko eskatzen dute

ESKUTITZAK

Zergatik mezak elebidunak?

Orain arte Elgoibarko euskaldun batzuek genuen kezka bat besterik ez zela pentsatzen nuen, baina hara non elgoibartar erdaldunek ere arazo berdinarekin aurkitzen diren:

Zer arrazoi dago MEZAK bi hizkuntzatan egiteko?

Euskaldunoi ez zaigu ongi iruditzen ez eta erdaldunei ere. Nere aitxixak, ez zuen sekula erdaraz egin eta bere hiletaren erdia erdaraz jasan behar izan genuen.

Nere amaginarrebak ez du sekulan euskaraz hitzegin, eta ez du hitzegingo, eta ez du inondik inora ere ongi ikusten, lehen erdaraz bakarrik ziren mezak bietan izatea. Bere iritziz, osorik entzungo ez balu bezala gelditzen da.

M. P.

Euskaldunak gara!

Duela bi asteko artikulua batek euskararen erabilerak gorantz egin duela zioen Elgoibarko gazteriaren artean. Askorentzat berri pozgarria bada ere, nire iritziz ez da horrenbestereinokoa: inguruko beste herri askotan gazteek elgoibartarrok baino askoz gehiago hitz egiten dute euskaraz.

Elgoibarko gazteon gehiengoa euskaldun sentitzen gara, baina Instiko zeini ez zaio gertatu gazteleraz hitz egiten egon eta euskarako irakaslea ikustean euskaraz hastea?

“San Juan Bosco” egunean bertsolariei ez zitzaien asko falta izan elgoibartarroi “maqueto” deitzeko, eta horrek amorrarazi gintuen: euskaldunak gara!!! (baina, gazteleraz dihardugu. Zergatik??)

Gazte bat

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Aste honetako erretratu Maria Arantzazu Gabilondok laga digu. Berak esan digunez, erretratu 1971. urtean ateratakoa da. Ihauteriak gainean dauzkagunez, aproposa iruditu zaigu denboran atzera egin eta orduko ihauterietako erretratuak erakustea.

Arantzazuk esan digun bezala, erretratu Barrutia jabetxean aterata dago (gaur egun Santander banketxea dagoen tokian zegoen). Asteartez ohitura omen zen kuadrila elkar-tu, jabetxeren batean afaldu eta disfrazatu ondoren kalera juergara irtea.

Erretratukoek ere horixe egin omen zuten. Zeintzuk diren? **Jose Mari Gabilondo (†), Juani Barrutia** eta **Rikardo Suarez**.



AZKUE



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA



GAIEN ORDENA:

- 1.- Lehendakariaren agurra.
- 2.- Iazko aktaren irakurketa eta onarpena.
- 3.- 94. urteko memoriaren azalpena.
- 4.- 95. urterako asmoak eta aurrekontua.
- 5.- Galdera - erantzunak.

EGUNA:

Martxoaren 2a, osteguna.

TOKIA:

Kultur Etxeko hitzaldi aretoa.

ORDUA:

Arratsaldeko 7ak.

Gero eta gutxiago gara



Europa osoan eta orohar mendebaldeko gizarte modernoetan nagusitu den joera edo tendentzia demografikoa hedatu da gure lurraldean, bai eta Elgoibarren ere. Azken 20 urteotan gure herriak jasan dituen gorabehera demografikoek zera erakusten dute: biztanlegoak behera egin duela gero eta haur gutxiago jaiotzen direla eta, gero eta zaharrago hiltzen. Elgoibarko biztanleriaren hazkundera negatiboa izan da azken 20 urteotan. Biztanleriaren joera hau ikusteko migrazio mugimenduak eta hil eta jaio direnen kopuruak aztertu ditugu alboko orriko tauletan.




Udaletxearen erroldaren arabera 1994. urtean 11.359 biztanle zeuzkan Elgoibarrek. Duela 20 bat urte, 1974. urtean, 2000 biztalez inguru gehiago bizi ziren gure herrian, 13.654 hain zuzen. Ordutik tendentzia edo joera beheranzkoa izan da. Krisi ekonomikoak, familia txikiaren nagusitasuna seme-alaba bat baino gehiago edukitzeko ohituraren kaltetan, ezkontzeko adinaren atzerapena... faktore sozioekonomiko hauek eta beste batzuek ere, mendebaldeko gizarte aurreratuetan nagusi diren faktoreek, erabateko eragina izan dute biztanleriaren jeitsiera honetan.

Biztanlerik gehien 1979. urtean izan zituen Elgoibarrek 14.450ko kopuruarekin. Bi jeitsiera nabarmen gertatu dira azken urteotan: bat 1983. eta 1984. urteetan; urte bate-tik bestera 13.916tik 12.798ra jeitsi zen biztanlegoa, 1000 biztanle baino gehiago galdu ziren urtebetean. Urte

hau klabea izan zen ekonomian, krisialdi garrantzitsu baten hasera urtea izan baitzen. Bigarren jeitsiera handia 1990. eta 1991. urteen bitartean gertatu zen. Kasu honetan 500 bat biztanle galdu ziren, 12.059tik 11.693ra.

Heriotzak eta jaiotzak

Biztanle kopurua igoarazten eta jeitsiarazten duten indikatiboetariko bat heriotza eta jaiotza tasak izaten dira. Jaiotza zein heriotza kopuruak behera egin du aztertutako azken 20 urteotan. 1975. urtean esaterako, 160 jaio ziren Elgoibarren eta hil berriz, 95 pertsona hil ziren. Honek esan nahi du hazkunde bejatatiboa positiboa izan zela urte hartan. Goranzko joera honek kontrako bidea hartuko du 1985. urtetik aurrera. Jaiotakoek ez dute hildakoen kopurua gainditzen; 1985ean 87 hil ziren eta jaio 79. Hemendik aurrera hazkundera negatiboa izango da 1993 eta 1994ra arte. Azken bi urte hauetan badirudi jaiotzak



gorantz doazela edo behintzat, ez dutela beherantz egin.

Migrazio mugimenduak

Migrazio mugimenduek ere badute zeresanik biztanleriaren gorabeheretan. Faktore ekonomikoak bultzatutakoak izaten dira normalean. 60. hamarkadan etorkin ugari hartu zituen Euskal Herriak eta gaur egun, langabeziak eraginda, euskaldun askok kanpora jotzen du lan bila.

Elgoibarren ere antzerako zer-bait gertatu da. Duela 20 urte etorri ziren kanpotarrak gehiago ziren joan zirenak baino, migrazio saldoa positiboa izanik. Adibidez, 1973. urtean 138 pertsona etorri ziren gure herrira eta 105ek egin zuen alde. Joera alderantzizkoa bihurtzen da 1976tik aurrera, emigratu zutenak kanpotik etorri zirenak baino gehiago izan baitziren. Hemendik aurrera gero eta jende gehiagok egingo du alde gure herritik, eta gero eta gutxiago izango dira kanpotik datozenak. 1993an esaterako, 256 pertsonak egin zuen alde Elgoibartik, eta etorri, 94 pertsona etorri ziren. Prebisioren arabera emigrazioak gora egingo omen du. Honek esan nahi du, etorkinik etorri ezean eta hazkunde bejetatiboak (heriotzen eta jaiotzen arteko diferentzia) negatiboa izaten jarraituz gero, biztanleriak behera egingo duela datozen urteotan.

Nola mozorrotu diru asko gastatu gabe?

Hitz hauek irakurtzerakoan disimulu handiz egin ezazu, inork jakin ez dezan zertan ari zaren. Honetaz ziur zaudenean jarrai itzazu arreta handiz bertan proposatzen diren pausak eta ziur topatzen ari zaren hori aurkituko duzula.

Lehen urratsa hau da: duzun izkutu-ko organu delikatu eta sexualena martxan ipini. Nola oraindik ez duzula asma-tu? Hori da; zein izango zen bada? Burmuina!

Beraz, itzali telebista eta mugitu ipurdia. Kontxo!, etxea jendez beteta dago eta zure gestu ausartak txundituta utzi ditu. Disimulu handiz etxeko armarioetatik eman ezazu bueltatxo bat eta deigarria den guztia har ezazu; txaketak, praka zaharrak, biserak; makilatze-ko poteak, arkatzak, albal-a, haria, artaziak, papera, kola...

Hurrengo urratsa zure gelan, komunean edo ispilu bat dagoen gela batean sartzea izango da, argiak piztu, gustuko musikaren bat ipini eta... txatxan-txatxan!, ispiluaren aurrean arratsalde honetako protagonista zaitugu.

Une hau oso delikatu da: eguneroko begiak kendu eta kasu hauetarako behar direnak ipini. Zeintzuk diren horiek? Bada, umorez eta zinismoz kutsatuz irudiak pasatzen dizkiguten horiek.

Hauek lagunduko digute gure aurpegiko puntu bereziak topatzen: aitzixtak heredentzian utzitako aldaba, amamaren belarritxoak edota izekok utzitako ezpain sensual horiek. Makilajeak lagunduko digu beraiek behar diren moduan tratatzen. Ez ahaztu; lehenengo makilaje kapa

mehe bat eta arkatza, puntu bereziak azpimarratzeko. Hau da, testu batekin egiten dugun gauza bera eskema bat egiteko; je, je, je...

Ezer aipagarririk ez badugu topatzen ezta dezagun zuriz, eta aurpegi berri bat asma dezagun; tentagarria.

TOK! TOK! TOK! Norbait ate joka! Eskerrak aukeratu dugun gelak krisketa duen. Ikasten ari naiz! Musika horrekin?

Hurrengo urratsa lepotik behera doa. Hemen aukerak handiak dira, goian egin dugun lanak baldintzatuko gaitu edo ez, beraz, bide bat edo bestea aukeratu; sexuz aldatu, adinez, lan-bidez, nazionalitatez...

Orain arte ez dugu dirurik gastatu, beraz, ondo goaz; baina ziur egon zaitezte detailtxoren bat falta zaigula; hala bada erosi, baina merkea, eh!!!

TOK! TOK! TOK! Txixaguria daukat! Kontxo, komunean sartu gara. Oraintxe noa.

Beno, arratsaldea aurrera doa eta kalera irteteko ordua dugu. Ideatxo batzuk baditugu; eta errekontxo! telebista ikusi gabe pasatu dugu arratsaldea.

Azkenengo urratsa zera da: hartu letra hauek eta bota itzazu komunetik behera; horrela inork ez du jakingo zertan ibili zaren.



TXOTXE URRUTIA

Sonia

Dantza Eskola



Elgoibarren
lehenengo aldiz!

- BALLET KLASIKOA
- DANTZA KONTENPORANEOA
- MANTENUKO GIMNASIA
- ESPRESIO KORPORALA

Errosario kalea, 31

☎ 74 38 39 / 10 18 37



S.Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

Martxoak 12 igandea

EMAKUMEEN BAZKARIA

Trikitilari eta
Bertsolariekin

MENUA

- Entremesak ▪ Salda ▪ Bakailoa
- saltsan ▪ Postrea ▪ Kafea

PREZIOA
1.500 pta.

KINMETZ Elkartearen eguerdiko 2,30etan

Izen ematea: Ongi-Izate Saila (74 10 08), Oiz-Mendi taberna eta Plaza Merkatuko taberna

IRIONDO

Taberna

P. Muguruza 2. ELGOIBAR



OIHANA URKIDI
18 urte, ikaslea

Ez. Diru gutxi gastatzea eskatzen daben disfrazak aukeratzen ditzugu normalian. Trajia gutxitan egin dou; iaz, adibidez, pirataz jazteko.



AURELIO GONZALEZ
27 urte, kamareroa

Ez, etxeko lau trapu zahar erabiltzen ditut edo norbaitek lagatako zerbait nahiz eta inoiz alki-latzea ere pentsatu izan dudan.



IKUSKA URIGUEN
18 urte, ikaslea

Normalian gauzak eskatzen ditzut edo etxeko gauzeekin moldatzen naiz. Konplementuak erosten ditzugu bihar izanez gero, makilajia, sonbreruak...



OSKAR GARCIA
22 urte, ikaslea

Ezer ere ez. Amari eskatzen diot erropia, beti emakumez jaten naizelako. Makilajia ere amana erabiltzen dut. Gasturik batere ez dut egiten.



ZURINE GURRUTXAGA
18 urte, ikaslea

Normalian etxeko trapuekin jaten naiz. Zapatuan enanitoz goaz. Iaz india trajia egin genduan eta aurten asteartian jazteko aprobetxatuko dogu.



RAUL SIERRA
24 urte, ikaslea

Ez dot asko gastatzen. Amak josi egiten duenez tela bakarrik erosten dut. Aurten etxean dauden trajeekin azken orduko zerbait pentsatuko dut.

*Mozorrotu zaituz
eta ondo...*



SAFETEGIA
74 42 65



San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

■ Ikastola, Elgoibarko ihauteriak berreskuratzen

Ikastolako ikasleek Elgoibarko ihauteriak berreskuratu nahian moztaroen usadiozko izaerari helduz, etxeko erroa zaharrekin jantziko dira hilaren 28an, ihauteri astearlean, arratsaldeko 3,30etatik aurrera. Dantzan eginez kalean izango dira, musika eta guzti, urte osoan gertatutako gaitz guztien erruduna den pertsonaia, deabru bat, aurkeztuko eta jipoituko dutelarik.

■ Eskalada ikastaroa

Morkaiko Mendizale Elkartek eskalada ikastaroa antolatu du gazte zein nagusientzat. Ikastaroa Kiroldagiko rokodromoan izango da martxoan zehar eta parte hartzeko baldintza bakarria federatuta egotea da. Materialea Morkaiko Mendizale Elkartek jarriko du. Izena emateko azken eguna martxoaren 3a izango da eta egun horretan bertan bilera bat egingo da Morkaikoren egoitzan. Edozein zalantza argitzeko Morkaikoren 74 02 09 zenbakira hots egin daiteke.

■ KASen hitzaldia

Joan den astean Elgoibarko KASek antolatutako hitzaldia hil honen 24an izango zela iragarri genuen. Xabier Alegria KASeko bozeramaleak egun horretan etortzerik ez duenez antolatzaileek hilaren 27ra atzeratzea erabaki dute saioa. Beraz, hilaren 27an iluntzeko 8etan hasiko da "Independentziaren estratejiak ba al du irtenbiderik?" izenburuko hitzaldia Kutur Etxean.

■ 60 lagun Formigalen

Ibai gimnasioak Formigalera antolatutako irteeran 60 elgoibartar izan ziren. Eski alpinoa praktikatzeko asmotan joan ziren, eguraldi ona eta giro ezin hobea izan zutelarik. Ibai gimnasioak beste eski ikastaro bat antolatzeko asmoa du martxoan edo apirilean.

Udalak eta Elgoibarko Izarrak 95erako hitzarmena sinatu dute



Elgoibarko alkateak, Jose Inazio Elgoro-Iribek eta Ales Arrietak Elgoibarko Izarrako presidentek, bi erakundeen arteko elkarlana eta lan-kidetza azaltzen duen hitzarmena izenpetu zuten astearlean. Hitzarmenean sinatutakoaren arabera, Elgoibarko Izarrak 1995. urtean zehar burutuko dituen iharduerak edo ekintzak diruz laguntzeko konprometua hartu zuen Udalak; honela euskal kulturaren alde lanean jarraitzeko aukera izango du Elgoibarko Izarrak. Elkartek 5.100.000 ptako diru laguntza jasoko du Udaletik 1995. urteko egitasmoa burutzeko, otsailean hitzartutakoaren %60a eta gai-

nontzekoa, urteko memoria eta diru zuriketa egin ondoren.

Elgoibarko Izarrari ezezik, BARREN astekariari ere 95. urterako dirulaguntza emateko hitzarmena sinatu zuten Ales Arrietak eta Elgoro-Iribe alkateak. Astekariak bi urte hauetan lortu duen onarpen soziala eta estimazioa kontuan izanik, proiektu honi jarraipena emango dio Udalak, 1995. urterako 7.500.000 ptako dirulaguntza onartuz. BARRENek galerarik izango balu, Udalak astekariaren gastu osoaren %37a bitarteko diru kopurua jarriko luke.



Pilar ikastetxeko 4.

mailako 28 haur eta irakasle batek Tolosaldeko Alkizako barnetegian igaro dituzte hilaren 6tik 18ra bitarteko egunak, euskara lantzen. B ereduko haur hauek hainbat ekintza burutzeko aukera izan dute. Aktore izan ziren beraiek egindako pelikuletan, *Indiana Jones*, *Peter Pan* eta *La familia Addams* filmeetako protagonistak bihurtuz eta, irratsaioak, ipuinak, txotxongilo saioak, igarkizunak, jolasak eta beste ekintza mordoak ere egin zituzten. Egonaldi polita izan dutenez, datorren urtean ere itzuliko direla azaldu digute.



Leizarpe Espeleologia Taldeak Pedro Muguruzako eskoletan kokatuta duen mineral eta fosil museoa Kultur Etxeko erakusgelara ekarri du erakusketa egin asmoz. Paleontologiari buruzko pieza hauek beraz, ikusgai egongo dira egunero arratsaldeko 6etatik 8ak arte astegunetan eta 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara bitartean jaiegunetan. Erakusketa gaurtik hasita, hilak 15, datorren martxoaren 19ra bitartean egongo da zabalik. Erakusketa bukatzean, Pedro Muguruzako museoan astero irekiko dute, igandetan eta asteartetan. Aurrera begira, museoan municipalizatzeko nahia azaldu dute.

■ Jazz kontzertua

Musika eta Dantza Fundazioak antolatuta, jazz kontzertua izango da martxoaren 3an Herriko Antzokian. "Andrezej Olejniczak-Iñaki Salvador Quartet" laukotea izango da joko duen taldea. Musikajoleak Andrzej Olejniczak (saxo tenorea eta sopranoa), Iñaki Salvador (pianoa), Victor Calada (bateria) eta Gonzalo Tejada (kontrabaxua) dira. Estatu osoko jazz eskenatoki garrantzitsuenetan ibilitako laukotea da, beraiek egindako konposizioak eta beste batzuen arregloak jotzen dituztelarik. Donostiako jaialdian izanak dira, Getxon, Zaragozan, Salamancan, Valladolid-en, Ibizan... eta beste hainbat lekutako jaialdietan ere bai. Era honetako musika atsegin dutenentzat aparteko aukera. Sarreraren zenbatekoa 350 ptakoa da nagusientzat eta 200 haurrentzat. Kontzertua arratsaldeko 7,30etan hasiko da.

CEUKO
Haurrentzat

Plaza
Fandian
Arratsaldeko
7etan

IHAUTERI FESTA

Otsabak 25em, larunbata

Mozoratuak etorri!

Dantzak
jolasak
Ogilartekoak
...

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO ZARRA
Kultur Elkarte

LAGUNTZAILEAK:
Elgoibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

Mari Karmen Elorza:

"Lagunek animatu ninduten nire gantxiloizko lanak plazan aurkezten"

Mendaroko "Etxabe" baserrian jaioa, Mari Karmenek 54 urte ditu orain. Zazpi anai-arreben artean gazteena den honek kontaktu digunez, oso gazte zela hasi zen gantxiloa egiten. Zortzi-hamar urte inguru zituen eta bere ahizpari ikusirik,

horrenbeste gustatu zitzaion berehala hasi zela koaderno eta grafikoak ulertu eta interpretatzen. Orduetik denbora asko pasa bada ere, bere afizioa haunditu egin dela esan digu, lan bakoitzak beste bat egiteko gogoia ematen baitio.

- **Gantxiloiz eginiko lehen lanak ezkontzako arreorako izango ziren, ez?**

- Lehenengoa 10-11 urterekin egin nuen. Gonazpiko bati puntilatxoia egin nion. Gero, baserrixan bizi ginanez eta baserriko lana egin biharra zauanez, gantxilorako denbora gitxi egoten zan. Eitxen gendua gabian izaten zan, ohera juten ginanian, izkutuan, aitzak eta amak ikusi gabe. Hor pasatu nitxun urte batzuk ezer asko egin gabe, astirik ez nakalako.

- **Halere jarraitu zenuen.**

- Bai, Elgoibarrera etorri nitzan neskame eta rebista eta eskaparatieta-ko lantxuak ikusitxa, nere afiziua haunditxu egin zan. Nobixua hemengua topatu naban eta Donostiara jun zan batian esan nion gantxiloizko rebistak ekartzeko ta handik ein naban mahairako tapete borobil bat. Gero ezkontzeko planetan hasi ginan eta bai, lehenengo lanak ezkontzako arriorako



"Exposizio baten gizon batek galdetu zian sobrekama bat itxen zenbat denbora pasatu naban. 360 ordu gutxi gora behera".

izan ziran.

- **Nola bururatu zitzaizun zure lanak kalean aurkeztea?**

- Ideia hori ez zan nere burura etorri; kuadrilako kontua izan zan gehixenbat. Lan politxak itxen ikusten ninduten eta batek esan zian, "zu ere presentau egin bihar-ko zinake, hainbeste lan daukazu etxian...". Ordu-rako bazezilen artisauen erakusketia. Hasieran lotsia ematen zian, nik ez

nion nere laneri inportantzia haundirik ematen, baina azkenian oin dala hamar urte presentau nitzan. Gauza berrixa izan zan, jendiak ez zakixan nik holako lanik eitxen nabanik.

- **Eta erosteko asmorik erakutsi al du jendeak?**

- Lehenengo erakusketeta hartan saldu nitxun pieza oso eder batzuk. Gero, etxian egin izan ditxut kanporako enkar-guz. Horiek ez dira espo-

sizuetan ikusi. Gainera egindako lan guztiak esposizio baten ikusteko leku haundixa bihar da.

- **Gizonek zer erantzun eman izan dute zure lanaren aurrean?**

- Gizonezkuak gutxi sartzen dia asunto horretan. Ez dot uste ententitzen dabenik; hori emakumian lana da gehixen bat. Gurian gizonezkuak badaude eta lan hori itxen ikusten nabedian gustatzen jakue, esan leike sentsibilizatuta daudela, ze ikusten dabe esfortzua. Eskaparate bat ikusten dabenian politxa dala esaten dabe baina hortik aurrera ez dia sartzen. Exposizio baten gizonezko batek galdetu zian sobrekama bat itxen zenbat ordu pasatu nitxuan. 360 ordu gutxi gora behera

- **Alabak ikasi al dizu gantxiloa egiten?**

- Je, je, je... Ez, ez dit ikasi. Ahalegina egin zuan baina beste lan batzutan zebilen sartuta eta gauza asko ikasi ditxu baina hori ez.

XABIER GORRITI

Pako Oñederra

Pako tabernakoa



● **Zer da zure etxeko sukaldearen bereizgarri?** ▶ Txixarrua, muxarra, txuleta eta kostilla, dena parrillan eginda eta alioliaz bizitxuta.

● **Zein gustukoago, Subijana ala Argiñano?** ▶ Biak dira jatorrak, beraiengandik ikasten saiatzen naiz baina Subijananian egonda nago eta gehixao gustatzen jata.

● **Ba al dakizu pasa den astean txixarro**

kiloa ia 1000 ptatan zegoela? ▶ Bai; txixarro handixa edo "marikoia" deitzen dena aurten gutxi arrantzatu da eta, horrelakoak orain lehorrian ugaritxu omen dira.

● **Egin al duzu aurten sagardotegira bixita?** ▶ Bai, astean egon gera, bi hilabete bakarrik dira urtian eta aprobetxatu egin behar da.

● **Ba al dago jaki goxoekin emakume bat konkistatzerik?** ▶ Edozelan ere, emakume bat konkistatzea zaila da.

● **Dantza sueltoan ala helduta?** ▶ Helduta noski, heldu-helduta gainera.

● **Aukeratzekotan, zein nahiago, Altzolako ura ala ardo gorri nafarra?** ▶ Ura garbitzeko, eta bestela, ardaa.

● **Afari on baten ondoren...** ▶ Trago batzuk hartu eta emakumetan egin behar bada ere; animo!

● **Baraualdia egitea ona omen da.** ▶ Izango da baina nik nahiago ondo bazkaldu eta afaltzea.

● **Tabernan sukaldari, eta etxean?** ▶ Etxean ere arreba eta biok.

● **Berriz jaioz gero, zer gustatuko litzaizuke izatea?** ▶ Tabernari ez behintzat; eta politika ere ez da neretzako karrera.

● **Zuen etxetik pertsonaia ezagunik pasatu al da?** ▶ Bai, ugari. Balnearixura etorritakuak, Anquetil, Bahamontes...

● **San Valentin festa ospatu al zenuen?** ▶ Ez, jada moda hori pasa zait.

● **Ihauterietarako zerbait prestatuta?** ▶ Ez daukat astirikan, lan egin behar dut.

● **Eskapadarik Tolosako ihauterietara?** ▶ Bai, martitzenian ixa urtero joaten naiz bertara, han ambiente itzela egoten da.

● **Mozorrotzen al zara?** ▶ Ez; lehen bai, baina gaur egun ez.

● **Zure esku balego, Altzola independente izango zen?** ▶ Nigatik bai, baina gutxi gera eta zaila izango zan. Hala ere, kobratzeko orduan bakarrik gogoratzen dira elgoibartarrak gutaz. Hor daukagu errekoa, garbitzeko premia izugarria dauka.

EDURNE KORTA

IHAUTERIAK

DOINUA:

Juana Bixenta Olabe

Neguko hotzak eta euriak uxatuko ditu ihauteriak.

Pailazo, indio ta bakero bata lapur bestea torero.

Hau da hau marka!

Ezingo dugu inortxo barka mozorrotzea ederra baita

Larunbat gaua ondo pasatu, asteartean berriro indartu, asteazken hausterre eguna elizan ospatu ohi duguna.

Ostegunean

berriz hasi beharra lanean hartu dezagun guk umorean



LORE AGIRREAZALDEGI

foto | *Ondo pasa*
azkue *Ihauteriak!*

LARUNBATA 25 EGUN OSOZ IREKITA

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

KAFETEGIA

Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

Fotero

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

373 eskaera jaso ziren Kontsumo Bulegoan 1994ean

1994. urtean zehar 373 pertsonen aholku eskaerak jaso zituen Kontsumo Bulegoak. Horietatik %90a informazioa eskatzera joan ziren eta gainontzekoak salaketa-zuzenketa eskaerak izan ziren. Herritarrek etxebizitzari buruzko informazioa eskatu zuten batez ere; 142 guztira.



GAIA	Guztira	Informazio eske	Zuzenketa-salaketa eske
■ Etxebizitza	142	142	-
■ Norbanako zerbitzuak	72	61	11
■ Herri zerbitzuak	60	54	6
■ Besteak	52	42	10
■ Monopolioak	26	21	5
■ Industria	9	8	1
■ Azoka araupidea	8	7	1
■ Elikadura	4	3	1

Horrezaz gain hainbat ekin-tza burutu ziren urtean zehar, hala nola, CADEM-ekin batera ibilgailuen ikusketa edo errebisioa otsailaren 14tik martxoaren 4ra bitartean.

Elikadura, industria, herri zerbitzuak, norbanako zerbitzuak, monopolioak edota azokako araupideak izan dira, besteak, beste, kontsumo bulegora iritsi diren gairik nagusienak. Horien bueltan aholkuak edota, kasuaren arabera, salaketa-zuzenketa bideratu izan du bertako teknikariak. Herri zerbitzuei dagokienean, 60 eskaera jaso ziren orotara, 54 informazioa jaso asmoz eta beste 6 zuzenketa eske. Bestalde, triptikoak banatu zituzten kontsumitzaileari sortzen zaizkion gaien zalantzak edo arazoak legearen arabera zer nolako laguntza izan dezaketen azalduz. Salmenta bereziei buruzko informazioa jasotzen zuen beste triptiko bat ere argitaratu zen, etxez etxeko salmentari buruzkoa adibidez. Era berean, Gabonetako ekintzen barruan herriko saltoki ezberdinetan kalitate araei buruzko libururka batzuk banatu ziren.

Gabi jatetxea

Nafarroa plaza

Mozorrotuta datozenen artean
BI LAGUNENTZAT AFARI BAT
zozketatuko dugu!!

Zozketa asteartean gaueko 12etan izango da.

ONDO PASA IHAUTERIAK!!

BEREZITASUNAK

- GOSARIAK - PINTXOAK
(8,30etatik aurrera)
- MENU BEREZIAK
- MENU TRADIZIONALAK

JANGELA

Astelehenetik larunbatera IREKITA

San Bartolome Parrokia

- Felipe III.a erregeak 1617ko urtarrilaren 23an eliza berri bat eraikitzeko baimena eman zuen.
- Lehen urratsak eman zirenean, Elgoibarren bost kale, bi plaza, bi kontzeju etxe, alondegi bat (aleak eta beste zenbait jaki gorde, saldu eta erosteko lokal publikoa), harategi bat eta bi iturri zeuden. Harresien babesean bi errebal sortu ziren, bata San Lazaro ospitaleraino (Maalan) zihoana eta bigarrena Santa klara komenturen ondoan. Gaur egun ezagutzen ditugun auzoak ere zituen bai eta Altzola zein Mendaroko zati baten gaineko aginpidea ere.
- Frantzian Luis XIII.a eta Luis XIV.ak monarkia absolutoa ezarri zuten. Koroak erabaki guztien monopolioa zuen, Luis XIV.ak "Neu naiz Estatua" adierazi zuen.
- 1620an Luis XIII.ak ediktu baten bidez Behe Nafarroako erresuma Frantziako koroari erantsi zion. Dena dela, Nafarroak foruak eta askatasun gordetzen jarraituko du. XVII. mendearen erdialdera ikusi zen Borbondarrek nahi zuten Estatu eredu zentralista zela, Erregea eta Estatua bat izatearen eredu nahi


zuten.

- Penintsula Iberikoan Austria etxeko erregeek (Felipe III.a, IV.a eta Carlos II.a) sistema absolutista ezarri arren. Erreinu espainiarrak Estatu Federal bezala antolatuta zeuden. Erreinu bakoitzak bere erakunde eta ohizko legeak gordetzen zituen. Erakundeetan erregearen ordezkariak zeuden (Erretordea Nafarroaren kasuan, Korregidorea Gipuzkoa eta Bizkaian eta Diputatu Orokorra Araban). Euren betekizuna koroaren eskubideak defendatzea zen.
- Goi politikak elgoibartarren bizimoduetan eragina bazuen ere, XVII. mendearen haserako gertaera batek gure arbasoak hunkitu zituen. 1617ko martxoaren 24an, Ostiral Santua, sute ikaragarri batek lau kaletako etxeak, 15 ezik, erabat suntsitu zituen. Badirudi haize boladak erraz hedatu zituela sugarrak. Jendea soinean zermanarekin irten zen kalera. Hondamendi honek eragina izan zuen urtetan ekonomian. Besteak beste, eliza berriko obren hasera atzeratu behar izan zen.

PELLO ARRIETA



Don Tomas Zubizarreta Medikua (1907-1973)



- 1907an jaio zen Sasiolako ermitako eliz-etxean.
- Bergarako dominikoetan ikasi zuen eta Madrilen medizina burutu zuen.
- 1908an Elgoibarko mediku titular izendatu zuten. 45 urtez jardun zuen herritarrak sendatzen 1953. urtera arte.
- Egunez zein gauez, une oro zegoen sendabidea eskaintzeko prest. Puntuala eta metodikoa zen oso. Haseran zaldiz, gero bizikletaz, egunero egunero baserriak bisititzen zituen, gero herritarrak, eta, arratsaldean Altzolatarrak.
- 1918an, gripe izurrite handia egon zen. Herrikoak ezezik, Plaentxikoak ere zaindu behar izan zituen hango medikua gaisotu egin baitzen.
- Atletismoan "mezenas" gisa aritu zen Juan Mugerzaren mediku eta aholkulari izanik. C.D. Elgoibarko presidente izan zen.
- Pertsona maitatua eta estimatua, edozeini edozelako mesedea egiteko prest zegoen beti. Horrela 1948an omenaldia egin zitzaion.
- 1973ko otsailaren 6an hil zen.

AULIA
SAGARDOTEGIA
Legorreta ☎ 80 60 66

Kf g
ILEAPAINDEGIA
☎ 74 00 69
San Frantzisko, 40 3 - B

*Eskulanean
saiatzen gara*
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

MOTZAK

Mintxeta atletismo Taldea Ordizian

Dani Rinok entrenatzen dituen Mintxeta Atletismo Taldeko neska-mutilak fin ibili ziren joan den igandean Ordizian izandako Gipuzkoako Kros Txapelketan. Gorka Sanchez Gipuzkoako bigarren geratu zen infantiletan eta nesken alebin taldeak Euskadiko Txapelketarako pasea lortu zuen. Euskadiko txapelketarako sailkatu ziren halaber, Egoitz Martinez alebinetan eta Gorka Sanchez, infantiletan.

Pilota partiduak Ikastolako frontoian

Gaur, hilak 24, Deba Arroako Pilota Txapelketari dagozkion hiru partidu jokatu dira Ikastolako frontoian gaueko 10etatik aurrera. Plaentxiarren aurka arituko dira *Lagunak* Pilota Eskolako hiru kategoria ezberdinetan. Infantiletan Arrieta eta Heriz bikote plaentxiarrak Karmel eta Garate bikote elgoibartarraren aurka jokatu du. Jubeniletan *Lagunak* Eskolako Balzolak eta Lazarobasterrek, Laskurain eta Garcia kanpotarrak izango dituzte aurkari eta azken partidua seniorrena izango da, Ansola eta Alzibar elgoibartarrak Muguruza eta Calles plaentxiarren kontra.

Hemezortzi domina lortu dituzte Ibai Gimnasioko judoek



Ibai Gimnasioko 24 judoek hilaren 18an eta 19an izandako Deba Beheko Judo Txapelketan 18 domina irabazi zituzten. Larunbatean Gorka Garatek urrezko domina eskuratu zuen pisu libreko kategorian. Kategoria honetan borrokatzeak pisu gehiagoko aurkariaren kontra jardun beharra suposatzen du. Horregatik 15 kilo baino gehiago pisatzen zuten judoken aurka borrokatu behar izan zuen. Hala ere ez zuen kategoria honetan nagusitzeak arazorik izan. Carlos Angulo elgoibartarra ere kategoria berean aritu zen, brontzezko domina eskuratu zuelarik. Larunbatean bertan Xabi Gonzalezek, 11 urtekoak, brontzea lortu zuen.

Igandean, Esther Idiakezek urrezko domina eskuratu zuen, honen ahizpa Mariak zilarrezkoa, eta, Miren Mugerza, Ana Estevez, Zuriñe Polo eta Joana Moreiras hirugarren postuan geratu ziren brontzezko dominarekin. Mutikoetan Aitor Gonzalezek urrezkoa lortu zuen, zilarrezko domina eskuratu zuten Aitor Gabilondok, Iker Rodriguezek eta Aitor Mugerzak eta brontzezkoa merezi izan zuten Jon Ander Pascualek, Unai Fernandezek, Ekain Jimenezek, Alberto Fernandezek eta Zuhaitz Martinezek. Datorren topaketa garrantzitsua Gipuzkoako Txapelketa izango da. Bertan Euskadiko Txapelketarako pasea lortzen ahaleginduko dira.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 25

16,30: Elgoibar - Aloñamendi (Neskak)

ESKUBALOA Kiroldegian Larunbata 25

16,00: Pagoaga Elgoibar - Zarautz (Kadete neskek)

17,30: Elgoibar - Bergara (Jubenil mutilak)

PILOTA Ikastolako frontoian

Ostirala 24, gaueko 10etan

DEBA ARROKO PILOTA TXAPELKETA

- **Infantilak:** Arrieta-Heriz (Plaentxi), Karmel-Garate (Lagunak)
- **Jubenilak:** Laskurain - Garcia (Plaentxi), Balzola - Lazarobaster (Lagunak)
- **Seniorrak:** Muguruza - Calles (Plaentxi), Ansola - Alzibar (Lagunak)

EMAITZAK


FUTBOLA

Haundi 4 - Mungia 2
Zestoa 0 - Elgoibar 1 (2. errejionala)
Elgoibar 1 - Don Bosco 0 (Jubenilak)
Antoniano 1 - Elgoibar 2 (Neskak)
Ordizia 1 - Elgoibar 1 (Kadeteak)
Elgoibar 0 - Lagun Onak 0 (Infantilak)

ESKUBALOA

Pagoaga Elgoibar 14 - Leizaran 13 (Kadete neskek)
Elgoibar 23 - Ereintza 17 (Kadete mutilak)
Zarautz 24 - Elgoibar 18 (Jubenil mutilak)
Urnieta 19 - Elgoibar 15 (Senior neskek)
Txankakua Elgoibar 24 - Jauja 23 (Senior mutilak)


1994ko KIRO



JUDO

GORKA GARATE (14 urte)


- Gipuzkoako Diputazioak atleta promesa sub-17 izendatu zuen.
- Euskadi eta Gipuzkoako sub-15 selekzioetako partaidea.
- Nazioarteko txapeldun Mont de Marsanten (Frantzia).
- 5. Espainiako sub-15 Txapelketan.
- Euskadiko txapeldun eskolarra (sub-15).



PILOTA

ARKAITZ BALZOLA (16 urte)

- Inter-distritoetan Gipuzkoako txapeldun.
- "Cafe Baque" torneoa (buruz-buru) txapeldun orde.
- Bai "Liga Vasca"-n eta baita "Interpueblos" txapelketetan oso emaitza onak lortu ditu. Bere mailan Gipuzkoako onenarikoa da.



TXIRRINDULARITZA

JOSU UNZUETA (16 urte)

- Labegarietako Saria (Bergara): 8.a.
- Talleres Meca Saria (Aretxabaleta): 5.a.
- Otxoa Memoriala (Eibar): 4.a.
- Agustin Urkola Memoriala (Umieta): 4.a.
- Irurako Saria (Irura): 4.a.
- Atraves de Triana Saria (Oñati): 6.a.
- San Isidro Saria (Usurbil): 2.a.



TRIATHLOIA

INAKI ANDONEGI (25 urte)

- Bi Ironman egin ditu; Anberesen (Holanda) eta Nizan (bere kategorian munduko 28.a gelditu zen).



ESKUBALOIA

LETICIA ASTRAY (15 urte)

- Bere taldea Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun geratu zen Infantil mailan. Espainiako Txapelketan 5. geratu ziren.
- Euskadiko selekzioko partaide izan zen eta Espainia mailako konzentrazio batean parte hartu zuen Leridan.



ATLETISMOA

CARMEN PEREA (20 urte)

- Pista estalia: 800 metrotako Gipuzkoako txapeldun absolutua eta Euskadiko txapeldun juniorra. Laugarren Espainiako Txapelketan (800m).
- Aire libreko pista: 800 metrotako Gipuzkoako txapeldun juniorra. 1.500 metrotako Euskadiko azpitxapeldun juniorra. Bostgarren 800 metrotako Espainiako Txapelketa Juniorrean.



EHIZA

PATXI ARRIOLA (30 urte)

- Gipuzkoako Oilagorren txapelduna.
- Euskadiko Oilagorren txapelduna.
- Espainiako Oilagorren txapelduna.



FUTBOLA

JOSEBA ETXEBERRIA (17 urte)

- Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioekin jokatu ditu zenbait partidu.
- Espainiako sub 20 selekzioan dago.
- Sanseko jokalaria da eta Real Sociedad taldean debutatu du 1. mailan.
- Errege kopako partidu bat jokatu du Betisen aurka eta Ligan Españolen aurka.



ARETO FUTBOLA

JOSE LUIS GONZALEZ (23 urte)

- Elgoibar Areto Futbol Taldean jokatu du 1. mailan.
- Gipuzkoako sub 23 selekzioan jokatu zuen 94an. Euskadiko txapelketan ere jokatu zuen.



IGERIKETA

AMAIA REVERT (15 urte)

- Aurreneko postuetan geratu da Oñate, Eibar eta Ondarrun izandako lasterketan, bere marka pertsonala gaintuz.

OLARI ONENA



HERRI KIROLAK

BOLO JOKUA: JAVIER OSORO (37 urte)

- Gipuzkoako Txapelketan 2.a bakarka eta taldeka.
- Euskadiko Txapelketan 2.a. bakarka eta taldeka. (3 txirlo eta bolo alaves).
- Gipuzkoako bikotekako txapelduna Jose Irustarekin batera.
- Elgoibarko txapelduna banaka.



KARATEA

MIKEL ARMENDIA (11 urte)

- Gerriko berde-urdina.
- Azpeiti, Markina, Elgoibar eta Lekeition izandako txapelketetan nabarmen aritu da lehen postuak eskuratu.



SASKIBALOIA

RICHARD ARANZABAL (25 urte)

- Zaragozako "Picos Coronas" 2. mailako ekipoa hegala pibot postuan jokatzen du.
- 94ko Gabon Kirol Txapelketako Kirolari onena izendatu zuten.



MENDIA

INAKI ETXABE (25 urte)

- 2-3 hilabete egin zituen Andean.
- 8 mendi igotzeko saiakera egin ondoren 6 hauetara igotzea lortu zuen: Huascaran (6768), Alpamayo (5.947), Quitarran (6036), Ranrapalca (6162), Ururus (5495) eta Uallunarju (5.686).



BARRENEK eta **UDAL KIROL ZERBITZUAK** **1994. URTEKO KIROLARI ONENA** aukeratu nahi dute. Horretarako Elgoibarko Kirol elkarteei euren iritzia eskatu diegu eta goian dauzkazuen 14 kirolariak aukeratu dituzte.

Erabakia epaimahai batek hartuko du eta martxoaren 14ean ospatuko den KirolBARREN 94 ekitaldian emango da ezagutzera. Epaimahaia Alberto Agirreazaldegia (BARRENEko zuzendaria), Ramon Mujika (Udal Kirol teknikaria), Aitor Zabala (DVko Kazetaria) eta Jose Gurrutxagak osatuko dute.

• KIROLBARREN KINIELA •



Asmatzen duzuenon artean

SONY

VHS **BIDEO HAU** zozketatuko dugu.



Zein izan zen kirolBARREN 93ko irabazlea?

.....

Zein izango da KirolBARREN 94ko irabazlea?

.....

Izen-abizenak.....

.....

Tel.:.....

Fitxa hau behar bezala bete eta ekarri BARRENERA martxoaren 13a baino lehen. Bi erantzunak asmatzen dituzuenon artean ARTEGI elektragailu dendak emandako SONY VHS bideo hau zozketatuko dugu. Zozketa KirolBARREN ekitaldian egingo da, martxoaren 14ean arratsaldeko 7etan Herriko Antzokian

BADubi

Estazio ondoan zegoen txabola batean elkartzten ziren haseran, Altzolan bertan beste tokirik ez zuten eta. Baina, orain dela hiru urte, Udaletxera jo zuten lokal bat eskuratu asmoz. Beraien eskaera jaso zuten eta urtebetera, Karmen enparantzan kokatzen den lokal bat eman zieten. Haseran eskolak zeuden eraikuntza hartan eta gerora, jubilatuek gimnasia egiteko erabiltzen omen zuten. Gaur egun, aipatu lokala, Bidubi izenekoa, gazteen topaleku bihurtu da.

14 tik 30 urtera bitarteko Altzolako gazteak Bidubin elkartzten dira, arratsaldero eta gauero. Bertan, berogailuen epeltasunean, futbolinean partida batzuk, karta jokuan beste batzuk, lagun arteko txatxaran, kitarra jotzen eta telebistan zein bideoan pelikula bat ikusiz ematen dute denbora. Norbaitek urteak betetzen dituenean ere bertan ospatzen dute.



■ ■ Dirua biltzeko futbolin txapelketak antolatzen dituzte.

Gazte hauek presidente bat ere badute. Legeztazerakoan norbaiten izenean jarri behar zen lokala eta pertsona bera izendatu zuten presidente.

Orain arte nahikoa izan dute lokala lortu eta behar bezala egokitu eta apaintzearekin. Aurrera begira hainbat ekintza burutu nahi dituzte, besteak beste, udara partean umeentzat zenbait irteera eta jolas.

Dirua biltzeko futbolin txapel-

ketak antolatzen dituzte. Aurten, Diputazioan ere eskaera bat egingo dute dirulaguntzaren bat jaso asmoz.

Toki majoa dute altzolatari gazteek aisialdirako, elkarrekin egoteko bai eta bestelako ekintzak antolatzeko ere. Esan digutenez, dei bat luzatu nahi dute, animatzen diren gazte guztiak Bidubira hurbil daitezen. Altzolatari gazte hauen txokoa denei irekia baitago, denek dute bertara joateko aukera.



Arrillaga, s.l.
INPRIMATEGIA

DISEINUA - FOTOKONPOSIZIOA - ETIKETAK, CARPETAK ETA
KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK - TIPOGRAFIA - OFFSET

Trenbide, 13 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 01 87 Fax: 74 27 40



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.

☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifikazioan. 15m² eta bi planta.

☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut santa Ana 46 zenbakian

☎ 74 13 67

GARAJE BAT alokatzen dut San Roken, 5 zenbakian. Marraduna.

☎ 74 02 61

GARAJE BAT daukat alokatzeko San Rokeko pista beltzean. Marraduna.

☎ 74 21 64

Marradun GARAJE BAT saltzen dut. Santa Ana 6.

☎ 74 02 81

9etatik aurrera

Salerosketak

2 urtetako SIBERIAN HASKY BAT saltzen dut. Papelak dauzka eta pedigreea ere bai.

☎ 74 38 41

Karnabaletarako HAURREN JANTZI BATZUK saltzen ditut: txanogorritxu, dama antigua eta arabe.

☎ 74 14 69

BMX KLASEKO BI BIZIKLETA saltzen ditut. Bata Peugeot markakoa, oso ondo zainduta, eta bestea Huch (USA) markakoa: kuadro orijinala, bakarra, frenoak, llantak eta manillarrak erregalatu.

☎ 74 34 05

KARABANA BAT saltzen dut. 5 plazatak da eta egoera oso onean dago.

☎ 74 37 84

MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria. Gauzez deitu.

☎ 74 26 26 / 74 20 31

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.

☎ 74 17 60

AEG markako erropa lehortzeko SEKADORA BAT saltzen da. Berria dago.

☎ 74 34 06

Bestelakoak

URREZKO KATE BAT galdu dut. Inork aurkitu badu, mesedez deitu.

☎ 74 32 48

KATU SIAMES BAT galdu da Ermuaranbide kalearen inguruan. Ile luzea du. Ikusi edo jaso duenak dei dezala, mesedez.

☎ 74 40 85

GITARRAKO KLASEAK hartuko nituzke, norbait klaseak emateko prest balego.

☎ 74 09 02

Anbulategian KARTERA lapurtu zidaten. Diruagatik ez du inporta, dokumentazioa errekuperatu nahi dut. Entregatu Udaltzaingoa.

☎ 74 42 49 / 74 22 14

CARITASEk sukaldarako eta salarako ARMARIO BAT behar du.

☎ 74 15 09

☎ 74 12 57

Lana

ENPRESA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUAK kontabilitate balantzeetarako analisi eta auditoriako partikularrak ematen ditu. Maila guztiak.

☎ 74 03 95

Neska euskalduna ETXEKO LANAK edota UMEAK ZAINTEZKO prest dago.

Goizez. ☎ 74 09 02 Kristina

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.

☎ 74 39 89 Mari Karmen

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.

☎ 74 43 16 Mari Karmen

Goizez

Era guztietako faszikuluen ENKUADERNAKETAK eta KONPONKETAK egiten ditugu.

☎ 74 04 39 Edurne

Bilboko sendi batek AUPAIR BAT hartuko luke Northamptonen (Inglatera). Etxean erdaraz hitz egiten da baina goizeko 9etatik arratsaldeko 3,30ak arte libre egongo litzateke.

☎ 74 15 73

Edozein testu mota ORDENAGAILUZ PASATZEN DA. Grafikoak sartzeko aukera.

☎ 74 41 77 Idoia

☎ 74 22 77 Iratxe

Etxebizitzak

Banketxeko langile batek Elgoibarren AMUEBLATUTAKO ETXEBIZITZA alokatuko luke.

☎ 74 05 62 Txema

9etatik 14etara

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran.

Igerilekua eta aparkalekua.

☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.

☎ 74 32 98

LOGELA BAT alokatuko nuke, sukaldea erabiltzeko aukerarekin.

☎ 74 41 32 Susana

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....461111

Txanda hartzeko.....743354

Planning742950

Alkoholiko Anonimoak..740385

D.Y.A (anbulantzia) ..464622

Gurutze Gorria.....743864

Mendaroko Ospitala.756264

Drogomenpekotasun Z.741008

Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442

PESA (Eibar).....112131

Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366

Kirol Zerbitzua744415

Kultura Zerbitzua742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua...743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

Elgoibarko Izarra.....741626

IMI.....741196

Kontsumo Bulegoa ...743088

Liburutegia743525

Musika Eskola742145

Mintxeta744315

Parrokia.....740842

Polikiroldegia741361

Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola74 44 41

L.H.I.....74 44 80

Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12

El Diario Vasco74 40 73

El Mundo74 22 67

El Correo Español...74 10 82

Egin.....11 84 21

Deia74 11 57

Zazpiki74 34 74

OSTIRALA

18,00-20,00 ESPELEOLOGI ERAKUSKETA

✓ Kultur etxean
Antolatzailea: Leizarpe
Martxoaren 19a arte

19,30-22,15 ZINEA

"El Rey Leon"

LARUNBATA

11,00 NAGUSIEN TANBORRADA ANTOLATZEKO BILERA

✓ Kultur Etxean

17,00 IHAUTERI FESTA

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19,00 MAUSITXAREN KALEJIRA

19,30-22,15 ZINEA

"El Rey Leon"

23,00 MAUSITXAREN KALEJIRA

Jarraitzen GAUBELA TALDEAREKIN DANTZALDIA

12,00 MOZORRO LEHIAKETA

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"El Rey Leon"

18,00 DANTZALDIA GELATXOREKIN

✓ Zaharren Biltokian

ASTELEHENA

20,00 HITZALDIA

Gaia: Independentziaren estrategiak ba al du irtenbiderik?
Hizlaria: Xabier Alegria, KASeko bozeramailea.
Antolatzailea: Elgoibarko KAS (24rako iragarrita zegoen)

22,15 ZINEA

"El Rey Leon"

ASTEARTEA

15,30 ELGOIBARKO IHAUTERIEN KALEJIRA

Ikastolako haurren eskutik

16,00 MOZORROEN TOPAKETA

✓ Plaza Handian

Jarraitzen "GAUR JAIA" HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

Taldea: "Teatro traperero del rio"

✓ Plaza Handian

18,00 KALEJIRA MAUSITXA ETA HANKALUZEEKIN

18,00 DANTZALDIA GELATXOREKIN

✓ Zaharren Biltokian

19,30 SUZKO ZEZENA

✓ Plaza Handian

21,00 HITZALDIA

Gaia: Autoestima.
Hizlaria: Amaia Vazquez.
✓ Mendaroko Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"Atrapado por su pasado"
(Ikuslearen eguna)

OSTEGUNA

19,00 ELGOIBARKO IZARRAKO URTEKO BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

✓ Kultur Etxean

OSTIRALA

19,30 JAZZ KONTZERTUA

Musikariak: "Andrzej Olejniczak eta Iñaki Salvador Quartet"
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Musika Fundazioa

22,15 ZINEA

"Entrevista con el vampiro"

ZINEA

El Rey Leon

Scar maltzurak bere anaia Mufasa, oihaneko erregea hiltzen du. Scar maltzurak hienekin bat eginik, lege eta ordena berri bat ezarri nahi du oihanean. Simba printze gaztea aitaren heriotzaren arduradun dela zabaltzen du Scar-ek, eta honela erbestera bidaltzen du. Han une alaiak bizi ditu Pumba eta Timon lagunen ondoan, baina egun batean aitaren heriotza mendekatzeko itzultzen da.

Atrapado por su pasado

Carlito Brigante (Al Pacino) Harlem-eko auzoan bizi izandako preso ohia da, hangoentzat mito moduko bat. Bost urte gartzelan pasatu ondoren, 1975ean etxera itzultzen da, ohoreari, bere hizkuntza eta kulturarekiko grinari, lagunetik leialtasunari eta baloreei tinko eutsiz. Harlem erabat aldatuta ikusten du, droga nagusi da eta inork ez du inor errespetatzen.

txandak FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
25, larunbata:	Bidasolo	Escala
26, igandea:	Bidasolo	Escala
27, astelehena:	Yudego	Yudego
28, asteartea:	Yudego	Yudego
1, asteazkena:	Yudego	Yudego
2, osteguna:	Yudego	Yudego
3, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Escala: Rekalde 1, Plaentxi. ☎ 75 16 38

OKINDEGIA:

26, igandea: IDARRAGA eta EIZAGIRRE

■ Hezkuntza serio eta efikaza oinarri hauen gainean:

- Giza baloreak.
- Ikasleei egoera berriak gainditzeko beren estrategiak sortzen irakastea.

■ "Euskeraz Bizi"ren barruan: Ikasi eta erabili!

■ Ingelera 4 urtetatik nazioarteko adituen eskutik.

■ Asmoak betetzen efikazak izateko baliabideak:

- 4.000 m2 kirol eta jolas leku.
- Irakasle guztiak euskaldunak, % 10a ingeleradunak.
- Egun guztiko psikologo orientatzailea.
- Musika 6 urtetatik 16ra arte.

IKASTOLA


2 urtetik 16ra bitarteko Hezkuntz Proiektua



NOZOPOLIN* IGHITAKETA

95

OTSAI LAN



1. 15.000 pta

2. 10.000 pta

3. 5.000 pta

ANTOLAZA

EL GOLBAR KO
TZARRA

PLAZA MANDAM
17.30
ETZEN ERATEA 2245-2345
TRAN

